

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN
APARTEKO BILERA**

2016ko maiatzaren 30a

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretuan, bi mila eta hamaseigarren urteko maiatzaren hogeita hamarrean, astelehena, eguerdiko hamabietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, aparteko bileran eta lehenengo deialdian, Jose Luis Echegaray Andueza alkate jaunaren lehendakaritzapean eta honako zinegotzi hauek etorri direla: Iban de Prado Etxepeteleku, Pedro Apezteguia Alzugaray, Esteban Irazoqui Irazoqui, Maria Victoria Gortari Aldave, Jose Maria Portu Ochoteco eta Severiano Txoperena Matxikote jaun-andreak.

Ez dira agertu honako zinegotzi hauek, eta ez etorri izana justifikatu dute: Mainer Arrieta Tapia, Oier Iantzi Ordoki, Lorea Flores Compains eta Mattin Etxabide Gartzia jaun-andreak

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Udal bulegoetako ordenagailu batean gainerrendako 1. puntuari dagokion zozketa egin ondoren, zinegotziak Batzar Aretora igan dira.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa egingen da, geroago Udalaren web orrian zintzilikatzeko xedearekin. Akten idazkerari dagokionez, kontuan hartu da 2016ko maiatzaren 20an eginiko bilkuraren 1. puntuan adierazitakoa.

**SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO
DEL AYUNTAMIENTO**

30 de mayo de 2016


En el Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las doce horas del lunes 30 de mayo del año dos mil dieciséis, se reúne, en sesión extraordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don José Luis Echegaray Andueza y con la asistencia de los siguientes concejales: don Iban de Prado Etxepeteleku, don Pedro Apezteguía Alzugaray, doña María Victoria Gortari Aldave, don Esteban Irazoqui Irazoqui, don José María Portu Ochoteco y don Severiano Txoperena Matxikote.

No acuden, habiendo excusado su inasistencia, los concejales doña Mainer Arrieta Tapia, don Oier Iantzi Ordoki, doña Lorea Flores Compains y don Mattin Etxabide Gartzia.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Tras practicarse en un ordenador de las oficinas municipales el sorteo correspondiente al punto 1 del orden del día, los concejales suben al Salón de Sesiones.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web del Ayuntamiento. En cuanto a la redacción de las actas, se tiene en



1

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

1 - ZOZKETA PUBLIKOA, EKAINAREN 26KO HAUTESKUNDE-MAHAIK OSATZEKO

Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, Udalbatzak zozketa egin behar du Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetako mahaiak osatzeko; 2016ko ekainaren 26an izanen direnak.

Artikulu horren 2. atalak (2/2011 Lege Organikoaren bidez aldatua) dio mahai bakoitzeko zerrendan biltzen diren pertsona guziek hartuko dutela parte zozketa horretan, "...baldin eta idazten eta irakurtzen badakite eta hiruretan hogeita hamar urte baino guttiago badituzte; hala ere, hiruretan hogeita bortz urtetik aitzinera, uko egiten ahal izanen diote zazpi eguneko epean. Presidenteak Batxilergo-titulua edo Bigarren Mailako Lanbide Heziketarena izan beharko du, edo, horren orde, eskola graduatuaren titulua edo haren baliokidea".

Zozketa bitarteko informatikoen bidez egin da. Hala, udalerrian dauden lau hauteskunde-mahaietako titularrak eta ordezkokoak izendatu dira. Bidezko jakinarazpenak egiteaz gain, emaitza guztiak Udaleko web orrialdean ere zintzilikatuko dira.

cuenta lo indicado en el punto 1 de la celebrada el día 20 de mayo de 2016.


Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

1 - SORTEO PÚBLICO PARA FORMAR LAS MESAS ELECTORALES DEL 26 DE JUNIO

Conforme a lo establecido por el artículo 26 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, el Pleno debe efectuar el sorteo para las mesas de las elecciones para el Congreso de los Diputados y el Senado, a celebrar el día 26 de junio de 2016.

El apartado 2 de dicho artículo (reformado mediante Ley Orgánica 2/2011) establece que participarán en el mismo la totalidad de las personas incluidas en la lista de electores de la Mesa correspondiente, "...que sepan leer y escribir y sean menores de setenta años, si bien a partir de los sesenta y cinco años podrán manifestar su renuncia en el plazo de siete días. El Presidente deberá tener el título de Bachiller o el de Formación Profesional de segundo Grado, o subsidiariamente el de Graduado Escolar o equivalente".

El sorteo se ha realizado por medios informáticos. De esta forma, son designados los titulares y suplentes que corresponden a las cuatro mesas electorales existentes en el municipio. Además de realizar las notificaciones que procedan, todos los resultados se colgarán también en la página web del Ayuntamiento.



Zinegotziek aho batez onartu dituzte eginiko eragiketak.

Las operaciones efectuadas son aprobadas con el voto unánime de los concejales.

2 – HIRIGINTZAKO ORDENANTZEN ALDAKETA, IRISGARRITASUNA ERRAZTEKO ETA ENERGIA-ERAGINKORTASUNERAKO. HASIERAKO ONESPENA

2 – APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE ORDENANZAS URBANÍSTICAS, PARA LA MEJORA DE ACCESIBILIDAD Y EFICIENCIA ENERGÉTICA

Nasuvinsak, Udalarari hirigintza arloan aholkua ematen dion enpresak, 2016ko maiatzaren 17an dokumentu bat prestatu zuen, honako izenburua duena: *Udal Planeko Hirigintzako Araudi Orokorra eta Eraikuntzako Ordenantzak aldatzeko proposamena, dauden eraikinetako irisgarritasuna hobetzeko eta energia-eraginkortasuna kudeatzeko* (1440. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean, 2016/05/18koa).

Nasuvinsa, empresa que asesora al Ayuntamiento en materia urbanística, emitió con fecha 17 de mayo de 2016 un documento titulado *Propuesta de modificación de la Normativa Urbanística General y Ordenanzas de Edificación del Plan Municipal para la gestión de la mejora de accesibilidad y eficiencia energética de los edificios existentes* (entrada nº 1440, de 18/05/2016, en el Registro General del Ayuntamiento).

Horretarako proposatzen du azken paragrafo bat gehitzea Hirigintzako Araudi Orokorreko 39. artikuluari.

Propone para ello añadir un párrafo final al artículo 39 de la Normativa Urbanística General.

Bertzalde, Eraikuntzako Ordenantza ere aldatuko litzateke. 72. eta 80. artikuluetan, “fatxadako materialei” buruzkoak (U.O.R. 1 eta U.O.R. 2 guneetan, hurrenez hurren) eta idazkera berbera dutenak, paragrafo berri bat sartuko da. 77. eta 85. artikulua ere aldatuko lirateke, “hegaldutako atalei” buruzkoak, eta halaber idazkera berbera dutenak bi U.O.R.-rako.

Por otra parte, se modificaría también la Ordenanza de Edificación. En los artículos 72 y 80, que se refieren a los “materiales de fachada” (en los casos U.O.R.1 y U.O.R. 2 respectivamente) y tienen una redacción idéntica, se introducirá un nuevo párrafo. También se modificarían los artículos 77 y 85, relativos a los “cuerpos volados” y que tienen asimismo idéntica redacción para ambas U.O.R.

Espedientean ageri da Udaleko idazkariak maiatzaren 19an eginiko txostena, proiektaturiko aldaketa onartzeko prozedurari buruzkoa.

Consta en el expediente el informe emitido el 19 de mayo por el secretario del Ayuntamiento, relativo al procedimiento para la aprobación de la modificación proyectada.

Hirigintzako Batzordeak espedientea aztertu zuen maiatzaren 25ean eginiko bileran.

Hori guziaz ikusita, Osoko Bilkurak, kide guzien aho bateko botoarekin ((horrela Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta), honako hau erabaki du:

1 - Hasiera batean onestea, Nasuvinsak eman duen txostenean ageri den idazkerarekin, Hirigintzako Araudi Orokorreko 39. artikulua aldaketa eta Eraikuntzako Ordenantzaren 72., 77., 80. eta 85. artikulua.

2 - Espedientea jendaurrean ikusgai edukitzea hilabetez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan argitaraturiko iragarkien bidez. Behin aldaketa behin betiko onesten denean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira aipatu artikuluen testu osoa.

Aipaturiko eguneko hamabiak eta zortzi minutu direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

La Comisión de Urbanismo examinó el expediente en reunión celebrada el día 25 de mayo.

A la vista de todo ello, el Pleno con el voto unánime de sus miembros (lo que supone la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación), acuerda:

1º) Aprobar inicialmente, con la redacción que consta en el informe emitido por Nasuvinsa, la modificación del artículo 39 de la Normativa Urbanística General y de los artículos 72, 77, 80 y 85 de la Ordenanza de Edificación.

2º) Someter el expediente a información pública durante un mes, mediante anuncios insertados en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral. Una vez que la modificación sea definitivamente aprobada, se publicará en el Boletín Oficial de Navarra el texto íntegro de los citados artículos.

Siendo las doce horas y ocho minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.

